



Arartekoaren 2013ko urriaren 28ko ebazpena. Horren bidez, gomendatzen zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari berrazter dezan eskaera honi buruz hartutako erabakia: 2013-2014 ikasturterako ikasleen onarpen-prozesuan aurkeztutako onarpen-eskaera.

Aurrekariak

1. Erakunde honetara helarazitako kexa-idazki baten interesdunak, (...)ek, bere seme (...)ren ordezkari jardun zuen 2013-2014 eskola-ikasturterako ikasleen onarpen-prozesuan.

Interesdunak gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen (...) ikastetxeko haur-hezkuntzan onartutako ikasleen behin betiko zerrendaren aurka, eta kexan dioenez, ez dago ados errekurtsuari buruzko ebazpenarekin (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako lurralde-ordezkararen ebazpena, 2013ko maiatzaren 20koa).

Ebazpen honetako gogoetetan xehetasunez aztertuko denez, desadostasunaren arrazoia da nola aplikatu den, interesdunaren kasuan, familia-unitatearen urteko errentaren datua, ikasleak onartzeko irizpideetako bat, hain zuzen ere.

2. Kexaren lehen balorazioa eginda, laguntza eskatu genien Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako arduradunei. Eskaerari erantzunez erakunde honi bidalitako idazkian azaltzen dutenaren arabera:

“Ikastetxeetan seme-alabentzako plazak eskatzen dituzten gurasoek aurkeztutako dokumentazioan faltsutasunik egon ez dadin, eta ikasleen onartze-prozesua objektibo egite aldera, Hezkuntza Sailak, Ikastetxeen Zuzendaritzaren bitartez, eskatzaileei buruzko datuak eskatu zizkien dagozkien foru-ogasunei, jakiteko familia-unitateek gainditzen zuten ala ez ezarritako errenta-muga. Horretarako, errentagatik puntuak lortu nahi zituztenek baimena eman behar zuten egoera hori egiazta zedin.

Behin 2013-2014 ikasturterako bi urteko geletarako onartze-prozesua amaituta, Lurralde Ordezkaritza honek ikusi ahal izan duenez, guraso batzuek gorako errekurtsuak aurkeztu zituzten, errentagatik puntuak eskatuta. Idatzi horiekin batera askotariko dokumentuak aurkeztu dira, errentagatik puntuak lortzeko egoeran daudela frogatu eta, hartara, lehenetsi duten ikastetxean plaza errazago lortzeko.

Horregatik, eta erakunde horrek (...) espedientean egindako azterketa kontuan hartuta, 2014-2015 ikasturtera begira, ordezkari nauen Sail honek konpromisoa hartu du familien diru-sarrerak egiaztatze aldera foru-ogasunera igorriko diren fitxategi informatikoetan adierazi beharreko datuak aztertzeko, betiere, ez dadin desitxuratu arauaren xedea, hau da, egoera ekonomiko ahulenean dauden ikasleei laguntzea.”





Gogoetak

1. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aginduan, 2012ko abenduaren 20an, egutegi komun bat ezartzen da eskabideak aurkezteko eta onarpen-epaiek zehazteko, eta onartzen da zein izango diren, 2013-2014 ikasturterako, ikasleen onarpenerako Jarraibideak Haur Hezkuntzan zein Derrigorreko Lehen eta Bigaren Hezkuntzan, bai Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako ikastetxe publikoen kasuan baita Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuenean ere (2013ko urtarrilaren 16ko EHAA, 11 zk.koa).

Hamargarren jarraibideak, azaltzen duenak nola aplikatu familia-unitatearen urteko errentari eta seme-alaben kopuruari buruzko baremoa, honako hau zehazten du gaiari buruz:

“1.– Ikasleak onartzeko Dekretuko eranskinean adierazitako puntuak lortzeko behar diren diru-sarrerara konputagarriak izango dira familia-unitateko kide guztiek 2011ko zerga-ekitaldian izandako zerga-oinarri orokorrari dagozkionak. Baremoko atal honetan punturik lortzeko, zerga-oinarriak ez du 42.000 euroko muga gainditu beharko. Ondorioz, puntu horiek lortu nahi izanez gero, eskatzaileek baimena eman beharko diote Hezkuntza Administrazioari datu horiek Foru Ogasunean egiazta ditzan.

(...)

*3.– Jarraibide honetako aurreko ataletan adierazitakoaren baitan, **familia-unitateak izango dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duten foru-arauetan izaera horrekin araututakoak**. Ezkontzak desegiten badira, ezkontideak banantzen edo dibortziazten edo izatezko bikoteen bizikidetzan eteten bada, erabaki judizial irmoz edo hitzarmen arautzaile baten bidez, baremoa aplikatuko zaie ikaslearen zaintza duen pertsonaren errentei. Berdin jokatuko da tutoretza judiziala, familia-harrera edo antzeko babesneurriak aplikatu behar badira eta adingabeko ikaslearen zaintza ez badago gurasoen esku. Ikaslearen zaintza herri-administrazioaren baten esku balego, puntuazio handiena emango da atal honetan.”*

2. Kexa ezarri duen interesdunaren kasua ez da sartzen xeheki aipatzen diren azken egoeren artean. Jarraibideetan jasotakoaren arabera, beraz, interesdunaren familia-unitatea zer tartetan kokatu behar den jakiteko beharrezkoa da zerga arautzen duen foru-araura jotzea, kasu honetan urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Araura, hortxe arautzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Arabako Lurralde Historikoari dagokionez.





Foru-arau horren 100.2 artikulua araberan (Familia-unitate motak), ezkontzalaririk edo izatezko bikoterik ez dagoen kasuan familia-unitatea guraso batek eta aurreko ataleko baldintzak betetzen dituzten seme-alaba guztiak osatzen dute, norekin bizi diren kontuan hartu gabe, hau da:

- a) adingabeko seme-alabak, gurasoen baimenarekin haiengandik independente bizi direnak izan ezik.
- b) adin nagusikoak izan arren epaiketa bidez ezgaituta egoteagatik guraso-ahal luzatu edo birgaituaren pean dauden seme-alabak.

Familia-unitatea alderdi horri dagokionez eratzeko, seme-alaba guztiak gurasoetako bati esleitzen zaizkio, bien arteko akordioz.

3. Kasu honetako dokumentuak aztertzean ikusi dugu onarpen-prozesurako aurkeztutako eskabidean bi gurasoen datuak ageri zirela, baina familia-unitatea eratzen ez zutela azaldu gabe.

Agirien artean badago, haatik, interesdunak eta haren semea (...)ren beste gurasoak 2011ko PFEZaren aitorpenari begira hitzartutako akordioaren kopia. Akordio horren bidez, urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauak 100.2 artikuluan aurreikusten duen aukerari heltzen diote.

Eskura dauzkagu, bestalde, hezkuntza-administrazioetik interesdunari emandako azalpenak, honako hau adierazten dutenak:

“Dado que los solicitantes de la plaza escolar deben identificarse (bien uno o ambos progenitores), esta Dirección de Centros Escolares solicita a las respectivas Haciendas Forales, mediante un fichero informático conteniendo los DNI´s de los solicitantes de su territorio, si la unidad de la que forma parte ése/ésos DNI supera/n o no el límite de renta establecido. En su caso, la Hacienda Foral correspondiente nos indicó, visto su escrito, que sí la superaba...”

Azaldutakoagatik, uste dugu hezkuntza-administrazioak, prozesua izapidetzean, ez duela gurasoen egoera berrikusi fitxategi informatikoa osatzeko, pentsatuz dagokion Foru Ogasunak, eskatu zaion zerga-informazioa itzultzerakoan, ohartaraziko zuela ea fitxategian jasotako ANen titularrak diren gurasoek familia-unitate bakarra eratzen duten edo ez, baina, bistan dagoenez, ez da horrelakorik egin kexa eragin duen kasuan.

Arabako Foru Ogasunak, ordea, ez du eragozpenik izan egiaztatzeko, aurkeztutako erreklamazioa eta errekurtsoen harira, interesdunak eta haren semeak familia-unitate bat eratzen dutela, eta interesdunak aurkeztutako 2011ko PFEZaren aitorpena baterako aitorpena izan zela, bertan (...) semea ondorengo bakartzat ageri zelarik.





4. Adierazi nahi dugu ontzat jotzen dugula hezkuntza-administrazioak hartu duen konpromisoa, horren bidez ikerketa bat aurreikusten baita Foru Ogasunetikiko datu-trukea hobetzeko eta, era horretan, ikasleen onarpen-prozesua era egokian izapidetzeko.

Dena den, eta erakunde honen iritziz, kontuan hartuta Arabako Foru Ogasunak emandako egiaztapenak erabat berresten zuela kexaren funtsa, hezkuntza-administrazioak, egiaztapenaren berri izan zuenean, berraztertu egin beharko zuen interesdunaren kasua, eta jarritako errekurtsua onetsi.

Hala egin ez zenez, ordea, hartutako erabakia oraindik dago berrikusteko legeak aurreikusten duen eran (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

(...) ikastetxeko haur-hezkuntzan onartutakoen behin betiko zerrendagatik aurkeztu den kexaren harira, berrikus dadila erreklamaziogileak aurkeztutako errekurtsuaren ezeztapena, eta berrikus dadila, halaber, nola aplikatu zen familia-unitatearen errentari buruzko onarpen-irizpidea, kontuan hartuz Arabako Foru Ogasunak emandako egiaztapena.

